

Sky Beats

Sky Beats 2012ko irailan jaio zen, Gus Gonzalez-ek (Freenetic, 2 AM, The Billie Jeans), Manu Gestido-k, (Mal de Muchos, Casual Blues, Les Fous) eta Sergio Villar-ek soul, blues eta mota horretako musika generoak nahasten dituen talde bat osatzea erabakitzean.

Data horren inguruan, Lidia Insausti ezagutu zuten, jazz eta soul iturrietatik edan duen abeslari gazte eta oparoa. Batzea erabaki eta Norah Jones, Stevie Wonder, John Mayer, Jamie Cullum edo The Police taldeen mailako errepertorioa osatu zuten

Hilabete batzuetako geldialdi baten ondoren, Sky Beats taldeak sei abesti propio konposatu ditu, eta bi bertsiorekin batera, 2013ko ekainaren bukaeran argitaratuko den diska batean irudikatu dute.

Taldea irrikitan dago beren abestiak publikoari aurkezteko, material berria lantzen jarraitzen duten bitartean.